



Amaia Irazusta Astiazaran PAUSOKA elkarteko kidea da.

■ TRATU ONEN MAPA-AINHOA IRAZUSTA ASTIAZARAN

«Guztien arteko elkarezagutza nahitaezkoa da benetazko herri inklusiboa izatera iristeko»

Zein da PAUSOKA elkarte-aren ibilbidea?

Pausoka Elkarte 2012. urtean 12 familiek osatu zuten. Familia hauek ezaugarri komun bat zuten, behar berezidun seme-alaba bat zuten eta hauen bizi-kalitatea hobetzeko borrokatu nahi zuten. Gaur egun, ia 100 familiaz osatutako familia handia eta anitza gara.

Eta zehazki zein da egiten duzuen lana?

Gure elkarteak behar bereziak dituzten umeentzako bi errehabilitazio zentru kudeatzen ditugu. Bertan disziplina anitzeko terapiak jasotzen dituzte gure seme-alabek (fisioterapia, terapia okupazionala, logopedia eta psikologia).

Zergatik animatu zineten «Tratu Onen Mapa» proze-suan parte hartzera?

Pausoka Elkarteak hasieratik oso harreman ona izan du Hernaniko udalarekin. Bai udalak, baita herritarrek ere elkarteari eta bertako kideei laguntza eskaini diete.

Herrian daukaguna baloratze aldera, zeintzuk dira egun dauden praktika onak?

Pausokan gertutik bizi eta eskertzen ditugu praktika onak. Gure egoitza Hernaniko lokaletan kokatua dago, gure umeak Hernaniko kiroldegiko igerilekuan ere

Bizipozan esaten dugun bezala, «Munduak guztiontzat beharko luke».

terapiak jasotzeko aukera dute... Gainera Hernaniko jai eta festetan maiz izaten dira «tratu onak»: anitzasunean elkarrekin, Errugby taldeko rugby inklusiboaren proiektua...

Eta zuen ustez, eta Tratu Onei dagokionez, zer indartu behar da Hernani mailan?

Errespetu eta eskubideekin ez da nahikoa; guztien arteko elkarezagutza nahitaezkoa da benetazko herri inklusiboa izatera iristeko

Nola irudikatzen duzue gaitasun anitzeko pertsonen inklusioa denontzako ona izango den Tratu Onen herri amestu horretan?

Bakoitzak bere interesekin eta gaitasunekin herriaz eta herritarrekin disfrutatzen. Ez bakarrik arkitektonikoki egokitutako kale eta eraikuntzak, baita guztiontzat egokitutako ekintzak ere. Bizipozan esaten dugun bezala «Munduak guztiontzat beharko luke». ■

■ EROTIKAN PLAX - AINARA AZPIAZU ADURIZ «AXPI»

«Begirada goxoko edozein gorputzetan marratzuko nuke»



Ainara Azpiazu Aduriz «Axi»

Mundu erotikoa mural batean marratu eta egi bihurtzeko boterea izango bazenu, nolakoa izango litzateke?
Pertsonaia anitzez josia, denak plazera eman eta jasotzen ari direna, kolore eta forma ederrez osatua.

Zer da zure lanetik gehien berotzen zaituena?
Imajinatzen dudana irudikatu ahal izatea eta gero paperean ikustek.

Plazerezko jarduera eta aurpegiak irudikatzen trebea zara, zein dira egunerokoan zure plazerezko unetxo edo jarduerak?
Naturarekin kontaktuan egotea: zuhaitz baten azpian eserzea edo hondartzara bazkaltzera joatea «tuper» batekin adibidez. Liburu ilustratu on bat esku artean izatea ere ederra da.

Zure bilakaera erotikoa marratzeko «paleta» bat izango balitz, nolakoa izango litzateke?
Kolore apalekin hasi eta gero eta biziagoak izango litzuzke.

«Arraroa» zuk idatzitako lehen ipuinaren izenburua, zein abantaila ditu arraro izateak ligatzerako orduan?
Sorpresa efektuak besteren eta norberaren grina piztu dezakeela.

Haur zein helduekin tailerrak ematen dituz, sexualitatearen

garian, transmisioak garrantzia al du?
Bai eta eskaintzen ditugun irudiek ere asko eragin dezakete horretan.

Albisteei binetak egiten ere ibiltzen zara, albisteren batekin amesten jarrita, zein ilustratzea gustatuko litzazuke?
Bizitza erdian jartzen duen gizarte baterako aldaketa erreala.

PLAZERREN PUTZUA

Zeinen gorputzean marratzuko zenuke gustura?
Begirada goxoa duen edozein gorputzean.

Zer zara gehiago kolore hotzetakoa edo beroetakoa?
Beroetakoa dudarik gabe.

Laztanak jasotzeko gune bat?
Aurpegia.

PLAX! Hernaniko udaleko sexu eta bikote aholkularitza da. Aurrez-aurreko doako arreta zerbitzua ematen dugu. Sandiusterrri 1 zenbakian dugu bulegoa. Hurrengo saioak: **maiatzaren 10ean, osteguna (15:30-18:30) eta 26an, larunbata (10:00-13:00)** Hitzordua egiteko: 656 544 606 (deitu edo bidali whatsapp bat), www.hernani.eus/sexu edo [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani)

Izena: Aina Azpiazu Aduriz «Axi»
Jaio: 1980-11-07
Herria: Hernani
Bizitokia: Igeldo
Lantokia: Andrekale, Hernani
Langabea: ilustratzailea

Harremanetan margolan abstraktuak edo errealistak nahiago?
Bietatik baina goxo-goxoak.

Ligatzeko garaian, trazo azkar eta potoloak edo fin eta detailatuak?
Finak eta detailatuak.

Gomendatuko zenukeen liburu erotikorik?
Kamasutra ilustratua, Tikal argitaletxearena.

SEX-ESALDIA BUKATU...

Desioaren etsaia da...?
Zakartasuna.

Jolaserako beharrezkoa da...?
Xuabe xuabe aritzea.

Tatxan! Eta orduan...
Tratu txarrik gabeko gizarte bat.

SASIGALDERA

Gomendio bat lagun, ikasle edo bezero bati, bere klitoria edo beste norbaitena goxatzen ikasi nahi badu?
Lasai lasai ondo arakatu eta esploratzeko eta aholku ederrak Plax! Sexu aholkularitzan izan ditzakeela. ■



Liburu aurkezpena

Festak, Genero-harremanak, eta Feminismoa

Hizlaria: Miren Guillo Arakistain

Maiatzak 10, osteguna 19:00etan Biteri kultur etxean

Antolatzaileak:
Berdintasun Kontseilua
Hernaniko Bilgune Feminista